

Abian da **leuko**, Alkatearen Jakintsu Kontseilua

Lezamako kultur aretoan elkartu gara LEUKOra 2019ko maiatzaren 23an, hamabi ume (Lezamako ikastetxe publikoko 3, 4 eta 5. mailako launa ikasle, sei neska eta sei mutil, zozketan aukeratuak), eta bi hezitzaile (Peru eta Juncal, jarduera berezi hau gerta dadin laguntzera etorriak). Zirkuluan eseri gara. LEUKO Lezamako Umeen Kontseilua da.

Eta zer da ba Umeen Kontseilua? Lezamarentzat lan egiteko hilean behin elkartuko den 8 eta 12 urte bitarteko pertsonen osatutako lantaldea. Jon Ander Aurrekoetxea Alkatearen mandatuz sortzen da talde hau, umeen herriaren gaineko begirada jaso nahi duelako, bere udal kudeaketan ikuspuntu hori aintzat hartu nahi duelako. Konpromiso hori hartzen du eta horregatik egiten die eskari umeei. Herrian pentsatzeko, herrigintzan parte hartzeko. Taldea eratu dugu, hasi gara lanean. Orain eratu da Umeen Kontseilua Lezaman eta epe luzearako da, taldea urtetik urtera aldatzen ariko bada ere.

Peio, June, Peio, Izaro, Aiert, Aitor, Izaro, Irati, Iker, Oier, Aisha eta Maialen dira lehen Jakintsuen Kontseilu honetako partaideak, eta elkar ezagutu nahi dugu lehen bilera honetan, pertsona-multzo izatetik lantalde bilakatu. Aurkezpenerako lehen urrats batean binaka jarrita bakoitzak bere buruari buruzko zerbait kontatzen dio lagunari, eta gero lagunak guztioi kontatu. Gauza bitxiak jakin ditugu, Zertan jolastea duten gustokoen, Lezamako herrian gustokoen dituzten lekuak, kasu, Gaztegunea, antzinako labaderoa, atleticen instalazioak, txokoa, Lohitzune dendako atea, plaza gorria edota erreka... Zein superbote aukeratuko luketen, hala nola, ikusezina izatea, teletransportazioa ala denboran bidaiatzea... Halako gauzak... Halako barreak egin ditugu ere.



Lezamari buruzko informazioak eskatzen dizkiegu umeei, hezitzaileok herria ezagutzen ez dugunez, ea herriak nola funtzionatzen duen, non elkartzen diren, zertan jolastera, zer duten faltan... Hasi dira jada umeak herriko erabakietan parte hartzen, herria bera hausnartzen, euren ikuspuntuak partekatzen...

Udaletxea ezagutzera joan gara gero, eta bertan Jon Ander Aurrekoetxea Lezamako Alkateak hartu gaitu. Bazter guztiak miatu ditugu eta bertako langileak ezagutu (Aitzol, Idoia, Ainare...) Paretan dauden Lezamako argazki zaharrak behatzen aritu gara ere, bertan umeen etxeak eta euren aitite-amumenak bilatuz.



Osoko Aretoan elkartu gara, zinegotzi guztiek bilerak eta plenoak ospatzen dituzten eserleku horietan. Jon Ander Alkateak azaldu die plenoak nola egiten dituzten, non esertzen den bakoitza, zein alderditakoak diren... eta baita 11 zinegotzi ateratzen direla hautatuak Lezamak 2400 biztanle inguru dituelako. Bertan esan die Alkateak LEUKOko umei zeri buruzko aholkua eskatu nahi dien:

Alde batetik, Kurtzean umeentzako parke bat egiteko aurrekontu bat dute eta bertan zer egotea nahi duten galdetu die umei.

Bestalde, gaur egun dauden umeentzako parkeetako bat estali gura dute eta LEUKOri galdetu nahi dio zein estali eta nola.

...Baina hurrengo bileran izango da hori, ohartu orduko eskolara bueltatzeko ordua baitugu. Ekainaren 11n izango da, eta uda ostean ere irailetik aurrera lanean jarraituko dugu.

Hemen ikusi eta jaitsi ditzakezue [bilera honetako argazki guztiak](#).